

## **ESKOLA-GARRAIO ZERBITZUAREN INGURUKO KEZKA, DESADOSTASUNA ETA BERRIKUSPEN ESKAERA**

### **Hezkuntza Sailari eta dagokion administrazioari:**

Munduko edozein herrialde eta txokotan gauza jakina da, hezkuntza sistema propio eta indartsu bat dela herrialde horren zutabe garrantzitsuenetako bat. Zaldibiako DBH3 eta DBH4ko ikasleen gurasook gure **kezka, desadostasuna eta haserrea** adierazi nahi ditugu datorren ikasturtetik aurrera gure seme-alabei eskola-garraio zerbitzua kentzeko hartu den erabakiaren aurrean. Hezkuntza Sailak erabaki du 4 km baino gutxiagora dauden herrietako haurrei zerbitzu hori ez ematea.

Erabaki honek Zaldibiako 40 ikasleri eta haien familiei eragiten die zuzenean eta uste dugu ez direla behar bezala baloratu izango dituen ondorioak. Harrigarria iruditzen zaigu hezkuntza-komunitate oso bati eragiten dion neurri hau hartzea, ikasleen segurtasunean, familien egunerokoan, aukeraberdintasunean eta mugikortasunean izango duen eragina behar bezala aztertu gabe. Eusko Jaurlaritzak etengabe aipatzen dituen printzipioak dira: **hezkuntza-berdintasuna, aukeraberdintasuna, jasangarritasuna, mugikortasun jasangarria, lurralde-kohesioa eta landa-eremuen garapena**.

Garbi daukagu alde guztiek, ahal bada, **eskolara modu autonomo batean joateko modua bilatu behar dela**. Hori horrela bada, ez dirudi erremedioak egokienak direnik. Ez guretzat, eta ez Hezkuntza Sailarentzat berarentzat ere. Zein dira geratzen zaizkigun aukerak?

**Oinez joatea edo bizikletaz joatea.** Irtenbide bat izan zitekeen, bide gorririk edo tankerakori balego. Baina Zaldibia eta Ordizia artean 3,8 kilometro inguruko distantzia dago eta ez dago bidegorri edo oinezkoentzako ibilbide seguru eta egokirik. Eta hara zer dioen Eusko Jaurlaritzako eskola garraioa arautzen duen dekretuak, 164/2026 dekretuak, hain zuzen ere, bere 2. kapituluaren (6. artikuluan):

“Salbuespenez, tresna informatikoaren bidez kalkulaturako oinezko ibilbidea egingarria ez bada bide-segurtasuneko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituelako, zenbaketatik kanpo utziko da, eta, haren ordez proposaturako ibilbideen artean, benetan oinez baldintza egokietan egingarria den kilometro gutxienekoa hartuko da kontuan. Salbuespen hori aintzat hartzeko, ezinbestekoa izango da ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeak ziurtatzea bidea ezin dela baldintza egokietan oinez egin, eta proposatzea desagokia dela”.

**Linea erregularreko autobusa erabiltzea.** Herri txikietako zerbitzuen murrizketak ez du etenik, hasi hezkuntza, osasungintza,...eta nola ez garraio publikoa. Hezkuntza Sailaren proposamena hori baita, garraio publiko erregularra erabiltzea ume eta gaztetxo horiek. Alde batetik arduragabekeria handi bat iruditzen zaigu, izan ere eskola-garraio publiko izateari utziko baitio, eta horrekin bakarrik, zenbait eskubide galduko baitituzte ikasleek.

- **Ordutegiak.** Linea erregularraren ordutegiak direla eta, ikasle askok 07:30eko autobusa hartu beharko lukete eta horrek esan nahi du ikastetxera behar baino askoz lehenago iritsiko lirakeela. Ondorioak: **adingabeak** ikastetxearen kanpoaldean egon beharko lirake denbora luzez, inolako zaintza edo arduradunik gabe, kasu askotan neguko goiz hotzetan, euripean edo eguraldi txarra dagoenean. Itzulerako autobusarekin berdin gertatuko zaie, ordu erdi batez zain egon beharko dute eta lekurik izango ote duten ez dute jakingo.
- **Kopurua eta segurtasuna.** Halaber, goizeko 08:00etako lineako autobusa hartuta ere ez da bermatzen 40 ikasle sartuko direnik. Autobus horiek zenbat eserleku dituzte? 25 edo 30 asko jota, eta ikasleek bakarrik, 40tik gora beharko lituzkete. Non joan behar dute? Nola joan behar dute? Horrek, gainontzeko bidaiari guztiak tokirik gabe utziko lituzke, eta herri arteko errepideetan, zutik bidaiatzea debekaturik dago. Zinez ulertezina egiten zaigu administrazio publiko batek egoera hori normaltzat edo egokitzen jotzea. Indarrean dagoen araudiaren arabera, hiriarteko eta eskola-garraioko autobus-zerbitzuetan bidaiari guztiak **eserita** bidaiatu behar dute eta **segurtasun-uhala** erabili. Nola bermatuko da gure seme-alaba guztiak baldintza horietan bidaiatuko dutela? Zer egingo da eserleku nahikorik ez dagoenean?

**Auto pribatuen erabilera.** Eskola-garraioa kentzeak ez du garraio publikoa sustatzen; alderantziz, familia asko seme-alabak egunero autoz eramatera behartuko gaitu, ibilgailu pribatuen erabilera handituz, trafikoa areagotuz eta emisio kutsagarriak gehituz. Neurri honek ez du inolako koherentziarik administrazioek aldarrikatzen dituzten jasangarritasun-politikekin.

Ez dugu pribilegio bat eskatzen. Eskatzen duguna da gure seme-alabek hezkuntzarako sarbidea **segurtasunez, duintasunez eta aukera berdinetan izatea**. Eskola-garraioa ez da erosotasun hutsa; aukera-berdintasuna bermatzeko eta landa-eremuetan bizi diren familien egunerokoa ahalbidetzeko funtsezko zerbitzu publikoa da. Administrazioei dei egiten diegu koherentziaz jokatzeko. Ez da nahikoa printzipioak aldarrikatzea; printzipio horiek eguneroko erabaketan ere islatu behar baitira. Pertsonak, haien segurtasuna eta hezkuntzarako eskubidea jarri behar dira erdigunean.

Horregatik guztiagatik, **gure protesta eta desadostasun irmoa** adierazten ditugu hartutako erabakiaren aurrean eta **eskatzen dugu:**

**Erabaki hau berriz aztertzea**

**Inplikaturako familiekin elkarrizketa irekitzea**, guztiontzat bidezkoagoa, seguruagoa eta koherenteagoa izango den konponbide bat bilatzeko.

Zaldibiako DBH3 eta DBH4ko ikasleen gurasoak.  
 Zaldibiako DBH 1 eta DBH2ko ikasleen gurasoak  
 Lardizabal Herri Eskolako Guraso Elkarte  
 Oianguren BH1ko Guraso Elkarte  
 Lardizabal Herri Eskolako Zuzendaritza  
 Oianguren BH1ko Zuzendaritza  
 Zaldibiako Udala

